



Bizi berrirantz

Iturmendiko adingabe atzerritarren zentroa itxi du gobernuak / 2-4



Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak agurtzeko ekitaldia. ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrik dagoeneko ez dago Iturmendin. Nafarroako Gobernuak behaketa- eta harrera-zentroa ixteko erabakia garagartzaroaren 10ean jakinarazi zuen. Aldi baterako itxiera da. Eta asteartean itxi zen, behin-behinean. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikari Bego Zestau Baraibarrek azaldu ditu itxieraren arrazoiak: "batetik, pandemiak mugak itxiarazi eta migrazio mugimenduak geldiarazi ditu eta, ondorioz, Nafarroara bakarrik dauden adingabe atzerritar bolumenik ez da iritsi. Eta, bestetik, autonomia lantzearen ondorioz, gazteak Iturmendiko egoitzatik beste pisu batzuetara eraman dituzte".

Hala berretsi du Gizarte Eskubideetako Departamentuko Familia eta Adingabekoen zuzendariorde Olga Chueca Chuecak: "badira lau hilabete etorrerarik ez dela izan. Eta babes sisteman sartu ziren adingabeak adinez nagusi dira dagoeneko eta bestelako gela- edo autonomia-baliabideetara joaten dira". Ramiro Gonzalez Martinez de Lezea

Zentroa itxita, behin-behinean

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrendako behaketa eta harrera zentroak asteartean itxi zituen ateak. Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, ez da erabateko itxiera izanen. Premiaren arabera erabiliko du

Iturmendiko behaketa- eta harrera-zentroko arduraduna izan da eta berak gaineratu duenez, "etorrerarik ez izatean Nafarroako Gobernuak egindako guztia berregituratzeko aukera izan du". Zestauk azaldu duenez, hausnarketa horretan aztertu dituzte "nola dauden harrera zentroak, baliabideak, nola ari diren lanean..."

Chuecak azaldu digunez, "gazteekin izandako esku hartzearen inguruko azken urteko ebaluazioa egin dugu. Datuek erakutsi diguten errealitatea da bizitoki txi-

kiagoetan egin behar direla esku hartzeak, lau pabost pertsona bizi diren pisuetan. Bai gazteen espektatibengatik, bai Nafarroara iritsi aurretik garatu duten autonomia prozesuengatik ere". Familia eta Adingabekoen zuzendariordeak gaineratu duenez, "helburua da gazteen espektatibei eta beharrei modurik egokienean erantzutea, horretarako, jakina ibilbide pertsonalitzatuagoak eskainiko ditugu. Hasieran behaketa laburra behar dute, ez luzea, gehienez ere hiru hilabeteren buruan akonpainamendu inten-

tsiboa egiteko, beti ere, bakoitzaren esku hartze plana kontuan izanik".

Konturatu dira adin txikikoen sisteman ezin zirela adinez nagusiak direnak egon. Hasieran iritsi ziren, inolako artikulaziorik ez zegoenean". Gonzalezek gaineratu duenez, Nafarroako Gobernuak "pentsatzen du dagoen adin txikikoen kopuruarekin herrialdean ez direla hiru behaketa eta harrera zentro behar eta birekin geldituko dira: Iruñeko Argarai larrialdi zentroa eta Martzillakoa (40 plaza)". Anitzar-

teaneko teknikariak zehaztu duenez, "aldi baterako da itxiera. Inork ez daki iritsierak izanen diren edo ez, zein tamainakoak. Mugak zabaltzen diren neurrian ikusi beharko da".

Urte bat, hiru fase

Joan den urteko udaberrian Nafarroara bakarrik zeuden adingabe atzerritar ugari iritsi ziren. Adingabeak bere ardurapean hartzera behartuta daude administrazioak, Nafarroako Gobernuak kasu honetan. Eta hainbat aterpe eta kanpin erabili zituen, herrialdean barna gazte horien dako egoitza sare bat eratzen zuen bitartean. Iruñerrian dauden zentroekin batera, Martzillan eta Iturmendin zabaldu ziren egoitzak. 2019ko garagartzaroaren 25ean iritsi ziren Iturmendira. Andre Mariaren Mirabeen kongregazioaren Estafeta kaleko 27. zenbakian duen eraikina zen.

25 toki ditu egoitza horrek. Handik 60 bat gazte pasa dira, denak mutikoak. "Zentro honek mistoa izateko ez zituen baldintzak betetzen, nahiz eta gobernua deialdia egitean hala izendatua izan. Emakumezkoak beste zentroetan izan dira. Nafarroan bi emakumezko besterik ez daude" jakinarazi digu Gonzalezek.

Iturmendiko egoitza behaketa eta harrera lanak egitera bideratu zuen foru administrazioak. Zestauk azaldu duenez, "bakoitzaren banakako behaketa edo azterketa egiten da: nola dauden, zer garapen prozesu duten, prestakuntza... Autonomia hartzen dutenean bigarren fasera pasatzen dira". Gonzalezek argitu duenez, "egoitza baliabide batera pasatzen dira, ez zentrotik pisura ez dira zuzenean pasatzen pisura. Beste edozein gaztek bezala, espezializatutako baliabide batera pasa beharko dute batzuek. Beste batzuek 24 orduko jarraipena behar badute egoitza baliabide batera pasako dira. Eta besteak gelabaliabideetara pasako dira. Azken horiek intentsitate faseen modukoak dira. Hor autonomia hartzen doaz, helduak diren erako autonomia eta segurtasuna



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com





Etxe pasiboetarako egokia
5 9000



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

izan dezaten". Zestauk azaldu duenez, gazte horiek autonomia lortu ahala fasez pasatzen dira eta pisu batera pasatzen dira, "banaka edo ikasleekin gela bat partekatzea. Dagoeneko hainbesteko tutoretzarik gabe, puntualagoa da".

Iturmendin egon diren azken 25 gazteak gaur egun Tuteran, Iruñean, Lizarran edo Martzillan daude. Bakoitzaren prozesuaren arabera hartu du erabakia foru administrazioak. Chuecak zehaztu duenez, "gehienak ez daude Iturmendi inguruan etxebizitza opatzeko lana neketsua baita. Haietako batzuk bizimodu independentea hasi dute, besteak beste baliabide batzuek ematen duten babes sistemaren barruan daude". Gonzalezek argitu digunez, "hemen zeuden gazte guztien balorazioa egin zegoen eta ez zeuden beste behaketa eta harre- ra zentro batera joateko moduan. Edozein egoitza baliabidera joateko prest zeuden. Batzuk adinagatik, pisuetan tokirik ez zegoe- lako eta pisu batean plaza bat hustu zain, zentro batera bidali dituzte".

Tutoretzapeko etxebizitza pare bat daude Altsasun, zortzi plaza guztira eta beteta daude. "Pisuan jende gutxiago daude eta profesionalen jarraipena dute. Beste gauza batzuk sakontasun gehiagorekin lantzeko aukera dago ere: prestakuntza, lan bilatzeko aholkularitza edo laguntza... Hortik". Gazte bakoitzaren garapenaren arabera mugikortasun handia dago tutoretzapeko pisuetan. Chuecak esan duenez, gobernuak Altsasuko bi pisu horiei eutsiko die, "adinez nagusi izatetik gertu dauden gazte hauen profilarendako eredu egokiena dela uste baitugu". Eta jakinarazi du aurreko egunetako mugimenduengatik aldaketak izan badira ere, bi pisuak beti beteta egoten direla. Joan den astean sei gazte zeuden.

Gonzalezek azaldu duenez, "halako baliabide batek aldi baterako izan behar du, ezin daiteke luzatu. Nafarroako Gobernuak horri buelta eman nahi dio. 25 plazako zentro batean gazte hauendako arreta ezin da banakakoa eta pertsonalizatua izan nork bere jatorri, kasuistika eta espektatibak dituelako. Hori egoitza-baliabideek ematen dute, banakakoagoa eta intentsiboagoa delako, talde txikiagoan. Errazagoa da horrela. Eta hirietan



Iturmendin egon den atzerritar adingabeetako bat. SEI ELKARTEA

daude, autonomia guztia, garraio publikoa, kontaktua eta komunitate integrazioa askoz errazagoa da hemen baino; Altsasura joaten ez badira. Eta horrek duen arriskuarekin".

Baimenez

Gazteek ikastea eta lan egitea dute buruan, familia lagundu ahal izateko. Beraien migrazio prozesuan Iturmendira iritsi diren gazteen egoera administrazioa erregularizatzeko bizileku eta lan baimenak ezinbestekoak dira. "Behaketa eta harrera zentroan egonda ere, azken 25 gazteen %80k bi baimenak zituzten, baita osasun txartela ere, eta erroldan zeuden". Gonzalezek gogorarazi duenez, "Espainiako Gobernuak otsailean erabaki zuen 16 urtetik gorako bakarrik dauden atzerriko adingabe guztiei bizileku baimenarekin batera lanekoa ematea. Palanka garrantzitsua da".

Marokok Bilbon duen kontsulatuarekin, Aljeriak Bartzelonan duenarekin eta Madrilen dauden Ghana, Gambia eta Indiako enbaxadekin harremanetan izan dira gazteen egoera legezatu ahal izateko. Erlazioak "onak" izan direla esan du Gonzalezek,

"BADIRA 4 HILABETE ETORRERARIK GABE. ETA ADIN TXIKIKOAK ZIRENAK ADINEZ NAGUSI DIRA ORAIN"

nahiz eta aitortu "zailena" ere badela: "hemen dugunarekin alderatututa desberdina da. Hemen osasun txartela eta erroldatzea eskubidea bat dira, denok ditugun paperak dira. Han traba gehiago daude. Gainera, adin txikikoak izatean, ikerketak daude. Etniak daude, kasua hartzen duenaren arabera, zure familiaren arabera... Hemen badaude ere, beste errealitate bat da".

Hurrengo erronka zein den ere zehaztu du Gonzalezek: "baldiratzak betetzen ez dituen gaztelaniazko alfabetizazioaz harago, gazteen premiei erantzunen dieten prestakuntza ibilbideak antolatu behar dira". Baimenak izanda, ikastetxeetan eta Nafarroako Enplegu Zerbitzura sartzea errazagoa izanen zaie.

Harremanaz

Bakarrik dauden gazte atzerritarrek ibarrean zeudela jakin zutenean, Sakanako Mankomunitateak foru administrazioari informazioa eskatu zion. "Eta koordinazio estu bat eramatea. Harrera ari bagara, zentzu guztia dauka Anitzarteanek hor parte hartzea. Baita ibarrean bertan dauden hainbat eragile ere: Sakana Harrera Harana... Harrera hori duina izan dadin". Hala azaldu digu Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko teknikariak. Ondorioz Iturmendin Tokiko Harrera Mahaia sortu zen, "zein zen egoera, zer premia zegoen ikusteko, elkarlanean zer egin zitekeen jakiteko".

Chuecak azaldu duenez, "erlazioa ona bazen ere, hobetzeko tartea zegoen". Hortik sortu zen abenduko Ongi Etorri futbol topaketa solidarioa. "COVID-19arekin bilerak ez dira hain maiz izan. Eta azkena itxieraren berri emateko izan da". Zestauk aitortu duenez, "nahi genuke harreman eta elkarlana estuagoa eta eraginkorragoa izatea".

Iturmendiko egoitzaren itxiera zela eta, "agur ekitaldi hurbila egin zuten" garagarriaren 18an. Aurreko astean 12-14 gazte zeuden egoitzan eta plazan agur ekitaldi xumea egin zenerako bost besterik ez zen gelditzen. Harrera etxean beste bost gelditu ziren. Zestauk azaldu duenez, lekualdaketak "segurtasun eza eta egonezin handia sortzen du. Ez zeuden parte hartzeko umorez, ez zekitelako orain zer gertatu behar zen, beste aldaketa bat..."

Zestauk Nafarroako Gobernuaren helburua "ulertzen" du, "baina haiek badakarte motxila eta bizi esperientzia. Deserrotze bat baino gehiago. Hona iritsi, denboraldi bat egoten dira. Haien artean adiskidetasun handia sortzen da, egoera berean baitaude. Oso harreman polita sortu da Iturmendiko adineko emakumez-

"DATUEK ERAKUTSI DIGUTE ESKU HARTZEAK BIZITOKI TXIKIAGOETAN EGIN BEHAR DIRELA"

ko batzuen eta gazteen artean. Eta gazte hori beste toki batera doa. Bere hobe beharrez ari dira, baina beste haustura bat, beste dolu bat eta berriz hasi behar hori. Konexioak egitea kostatzen bada, hasierako ezegonkortasun horrek egonezina sortzen du".

Asteartera arte behaketa eta harrera zentroko arduradunak aitortu duenez, "hainbeste denboraren ondoren" gazteei Iturmenditik "bat-batean" ateratzea kostatu zaie. "Ateratzea kostatu egiten zaie, aldaketa bat delako, nahiz eta beraien prozesuaren parte den, baina denbora horretan guztian sortutakoa hautsi da". Zestauk gogora ekarri du gazteak harrera zentrori iritsi zirenean herritarrek esandakoa, "hemen badaude, geldi daitezela hemen, elkar ezagutzeko-eta. Baina zerbitzua halakoa da". Gonzalezek gaineratu duenez, "sakabanatu dira, baina bazter guztietan kontaktuak dituzte. Hori da naturala dena. Nafarroa etortzea erabakitzea gauza bat da, baina inor ez zen Iturmendira nahita etorri".

Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikariak azaldu duenez, "mundu guztiarendako ikasketa bat" izan da gazte horiek Sakanan izatea. "Puntu batean enpatia lantzeko aukera ere eman du: guri tokitako balitzaigu, edo gure seme-alabei tokitako balitzaie joatea nahiko genuke ongi hartuak izatea". Gazteak Iturmenditik kanpo ere atera dira: Munduko Arrozkak ekimenean parte hartu izan dute, hizkuntzen azokan... "Planteatzen diren ekintza gehienetan parte hartu dute edozein sakandar bezala".

Familia eta Adingabekoen zuzendariorde den Chuecak esker ona azaldu dien "modu batera edo besterako proiektu horrekin kolaboratu duten guztiei. Zestauk eskerrak eman dizkie Altsasuri bai, baina "bereziki Iturmendiko herriari. Ulertuta hain herri txikian 25 gazte etortzea bat-batean. Ez da batera erraza izan, inpaktua sortzen du. Gainera, hizkuntza aldetik, batzuek ez zekiten gaztelania, ezta euskara ere. Ikastaroak egin zituzten. Herriaren garbiketaren parte hartu zuten. Ez direla denbora pasa etorri. Horrek ere egoera ulertzea ekarri du". Esker ona ere Victoriano Gabirondo Lanz alkateari adierazi dio: "ikaragarritzko lana egin duelako gazte horiek hartzeko garaian".



Ramiro Gonzalez Martinez de Lezea zentroko arduraduna izan da.

Konfinamendu garaian ongi moldatu ziren zentroan

Ez da positiborik izan, lasai egon dira eta kulturarteko ramadana bizi izan dute

Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI
COVID-19 gaixotasunak eragin-
dako pandemiak Iturmendin
harrapatu zituen gazteak. Mar-
txotik ez dira zentrotik mugitu.
Ramiro Gonzalez Martinez de
Lezea Iturmendiko behaketa eta
harrera zentroko arduradunak
azaldu digunez, itxialdia "oso
ongi bizi" izan dute. Ez da gai-
tzagatik positibo bat bera ere
egon ez talde profesionalen ezta
gazteen artean ere. "Gazteek lasai
bizi izan dute, guztia oso
kontrolatuta zegoelako. Eta be-
raien familietan ere ez da kasu-
rik izan". Familiarekin Whatsapp
bidez komunikatzeko aukera
izan dute eta pandemiaren erre-
alitatea normal eraman dutela
gaztigitu du arduradunak. "Egu-
nero komunikatzen dira. Beraien
herrialdeetako errealitatea des-
berdina da eta desberdin bizi
izan dute, informazio gutxiago
dago".

Gonzalezek gaineratu duenez,
"konfinamendua izan daitekeena
gorabehera, oso prozesu politik
bizi izan dira. Gazte batzuei on
egin die isolatuta egoteak eta
beraien hezkuntza prozesuan
zentratzeak. Talde oso heteroge-
nea sortu da, baina, benetan,
oso ongi funtzionatzen zuen;
familia moduko bat sortu zen".
Konfinamenduak ramadanarekin
bat egin zuen eta "kulturartekoa"
izan dela azaldu digu behaketa-
eta harrera-zentroko arduradu-
nak. Izan ere, egoitzan egon diren
azken 25 gazteen eta hezitzaileen
artean musulmanak, kristauak,
hinduak zeuden.

**"BATZUEI ON EGIN DIE
ISOLATUTA EGOTEAK,
BERAIEN HEZKUNTZA
PROZESUAN
ZENTRATZEKO"**



Bakarrik dauden adingabe atzerritarren behaketa eta harrera zentroa.

Kontratua bukatuta, langileak kalera

Nafarroako Gobernuaren esleipenak 18 lanpostu aurreikusten bazituen ere 21 egon
dira, eta bukaeran 24. Besteak beste edonora joateko furgoneta behar zutelako eta
gazteak ezin zituztelako bakarrik utzi

Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI
Arduraduna, psikologoa eta zu-
zeneko arretako hezitzaileak
(gizarteratzea, gizarte eta kulta-
ra animazio, gizarte langile,
psikologoak, gizarte hezitzailea)
egon dira gazteekin lanean, 21
guztira. "Baina azken fasean 24
izan gara, bajengatik, pandemia-
gatik atzerrian gelditu eta buel-
tatu ezin izan dutelako...". Gon-
zalezek zehaztu duenez, "Nafa-
rroako Gobernuak 18 lanpostu-
tako deialdia egin zuen, baina
gu beti langile gehiago egon gara,
komunikazio eta autonomia ara-
zoengatik, apenas ez dago garraio
publikorik eta bazter guztietara
furgonetan joan behar genuen.
Eta langile gehiago hartu genuen,

bestela gazteen desplazamenduak
ezin genituen bete".

Eskarmentu handiko langile-
ekin batera, hasi berriak egon
dira lanean. "Iturmendi dagoen
tokian egonda, onena izan da
hemen lanean egon dela Madril,
Valladolid, Donostia, Gipuzkoa,
Gasteizko jendea. Euskadin atze-
rriko adingabeekin eskarmentua
zuen jendea zegoen. Nafar batek
ere ez zuen halako eskarmentu-
rik, halako zentrorik 2019ra arte
ez delako izan. Batzuek ikasketak
despeditu berri zituzten, besteak
adingabeekin eskarmentua
bai, sarean ibilitakoak zirelako,
baina atzerritarrekin ez".

Zakan izeneko aldi baterako
enpresa elkartea arduratu da

Iturmendiko egoitzaz. Zabalduz,
Agintzari eta Kamira entitateek
osatu dute elkarte hori. "Agin-
tzarik eta Zabalduzek Euskal
Autonomi Erkidegoan eta Aki-
taniako esperientzia dute. Jato-
rriko herrialdeetako erakun-
deekin ere aritzen dira, batez ere
Agintzari. Hortik atera da genuen
lan eredu. Garbi genuen gaz-
teekin nola lan egin. Erakunde
gisa esperientzia bagenuen, gu
eta administrazioa eredu batera
egokitu gara. Honen ardura larri-
aldiagatik hartu genuen eta,
horregatik, bukatu da bat-batean".
Bestelako alternatibarik ez da-
goenez, larrialdi kontratua bu-
katu zenez, langile askori kon-
tratua bukatu zitzaizaien asteartean.

kaxeta

liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak



Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

**ZURE INFORMAZIOA
HEMEN!**

**BELEIXE IRRATIA,
GUAIXE ASTEKARIA
ETA GUAIXE.EUS**



BAZKIDE EGITEKO:
GUAIXE.EUS/HARPIDETZA



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Metro t'erdiko ohitura

Beti izan da ohituren aldaketa gauza konplikatu eta erronka handia. Horretan gaude orain, beste ohitura batzuk hartu behar ditugu, eta azkar, COVID19a kontrolpean izateko, hori da behintzat adituek, isildu gabe, esaten digutena.

Metro t'erdiko distantzia horretarako baldintzak daudenean, bete betetzen dugula esanen genuke, baldin eta kanpoko zein barruko kontrola badugu; baina, oro har, metro t'erdian huts egiten dugu neurria norberaren interpretazioaren esku uzten denean. Hortxe ohiturekin topo egiten dugu. Jakin badakigu ohiturak aldatzeko alde zein kontra jokatzeko duten faktoreak ditugula. Esate baterako, lagun talde batean gehienek metro t'erdiko araua ezartzen badute, errazagoa izanen da neurri horren garrantzia ikusten ez dutenek bete dezaten lortzea eta ohitura aldaketa egitea. Baina, kontrako ere gertatzen da, batzuek arduraz jokatu nahi izatea eta lagunkideek pertsona hori beldurtizat hartzea eta, noski, inork ez du beldurti itxura eman nahi; geroz, lehengo lepotik burua! Horrelakoetan geure baitan dugun nahasmena ikusten da:

JAKIN BADAIGU OHITURAK ALDATZEKO ALDE ZEIN KONTRA JOKATZEN DUTEN FAKTOREAK DITUGULA

zer da arduraz jokatzeko eta zer da beldurtia izatea.

Nire irudituz metro t'erdiko ohituraren irakurketak ñabardurak eskatzen ditu, eta zenbait eremutan irakurketa horretan nahasi samar gabiltzala esanen nuke,

esaterako: lagunartean, lagun talde zabaletan, familia zabalaren ospakizunetan, tabernetan, alegia, kanpoko kontrolik ez dugunean eta barruko behar denean. Apika, egoera horietarako jarraibide eta gomendio zehatzagoak ematea izan daiteke aurrerabidea gaitzaren zabalkundeari trabak jartzeko. Zenbat denbora komeni da maskararik gabe egotea jantze, taberna edo etxe batean gure ohiko eta gertuko lagunak ez direnekin elkartzeko garenan?

ZUZENKETA

Udalerrin bilakaera euskaldunen ehunekoaren bilakaeraren arabera. Horren berri eman genuen joan den astean 7. orrialdean. Informazioa ilustratzen zuen grafikoan Urdiaini buruzko informazioa alderantziz zegoen. 1991 eta 2001eko neurketetan urdindarren %80 edo gehiago ziren euskaldunak, eta 2011ko eta 2018ko neurketetan %50 eta %79 artean zegoen. Urdiainek Arruazuren eta Arbizuren bide bera egin du.

HARA ZER DIEN

Gure burua zainduz, besteak zaintzen ditugu

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

COVID-19ak eragindako osasun krisia dela eta, itxialdian bi hilabete pasa eman genituen. Beldurrez, ezjakintasunez, ziurgabetasunez betetako bi hilabete luze. Bizitzan bezala, egoera honetan ere norberak bere baliabideak, aukerak, inguruko laguntza, familia... izan ditu, gertaerak modu batean edo beste baten bidez. Testuinguru horretan gabezia asko izan ditugu, garrantzitsuenak afektiboak: maite eta behar ditugun pertsonekin egoteko aukera ez izatea, ezin lagunak eta familia besarkatu, laguntza eskaini, alboan egon... Etxean ordu asko igarotzeak, kontaktu fisikorik izan gabe, ondorio ugari ekarri ditu eta sozializatzeko beste modu batzuk sortu ditugu. Distantzia fisikoa konpentsatzeko gertu sentitzeko moduak bilatu behar genituen, eta baita aurkitu ere.

Pantaillak lehen ilaran jarri dira: telelanean, hezkuntzan, tramite ugarian, gure lagun eta familia-

rekin kontaktuan jartzeko, entretenitzeko... Errealitate honetan beste ohitura eta errutina batzuk sortzen joan gara, baina denak ez dira uste bezain osasuntsuak. Hausnarketa honakoa da: sozializatzeko moduak aldatu egin ditugula eta lehen kale eta taberna giroan egiten genituen kontsumoak etxean integratu ditugula (pintxopote birtualak, igandeetako bermuta...).

Ez dira gutxi izan, handik eta hemendik, treguarik gabe, bidali dizkiguten eta guk birbidali ditugun memeak: irrikan nago ateratzeko, munduko garagardo guztia edateko, orain arte edan ezin izan dudana guztia egun batean hartzeko. Beti ere umore puntu horrekin, baina premiazko nabardura batekin, beharrek, lehentasunarekin eta, noski, alkohola lehen lerroan eta, gure ustez, neurritz kanpoko balioa emanez.

Osasun arloko eta arlo sozial-etako profesionalak uste dute isolamendu garaian egin ditugun kontsumoak kezkarriak izan

daitezkeela, batetik, nahi gabe eta zentzurik gabeko modu batean geureganatzen badugu etxe barneko kontsumo hori, eta, bestetik, tabernetan eta jatetxeak bezalako beste foroetan egiten dugun sozializazio kontsumoa mantentzen badugu.

Horrek agerian uzten duena ez da berria, beharbada beste dimentsio bat eman zaio, baina, funtsean, alkohol kontsumoaren normalizazioaren pertzepzioa dago. Eta horrek kezkatzen gaitu, noski. Zergatik? Alkohola da gizartean arazo gehien sortzen duen droga. Azken datuen arabera, Nafarroan mendekotasun handiena sortzen duen sustantzia da.

Horregatik guztiagatik kome-nigarria litzateke alkoholarekin daukagun harremanaren inguruko hausnarketa egitea, eta, pasatu duguna pasatuta, argi izatea garrantzitsua ez dela pote bat hartzeko aukera ez izatea, garrantzitsua maite ditugun pertsonekin egon ezin izatea da. Eman diezaiegun bere lekua ohitura osasuntsuei. Orain inoiz baino gehiago "gure burua zainduz, besteak zaintzen ditugu" leloa gurea egin dezagun, eta zabal dezagun mezu hori inguruko artean.



DUELA 25 URTE...

Pilotalekua txapela jantzita

Gutxi ziren estali gabe zeuden Sakanako frontoiak, eta horietako bat Iturmendikoa zen. Udalak eta enpresak kontratua otsailean sinatu zuten. Egurrezko egitura duen teilatu ederra egin zuten. Eta hura festetan mustutzeko modua izan zuten iturmendiarrak. Argia ere bazuen, iluntzean ere jokatzeko aukera izateko. Pilotan, palan, areto futboleko... aritu dira iturmendiarrak estalpean. Baita bazkaltzen, afaltzen, dantzaren... ere.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larrazza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

San Pedro eta Santa Ageda, ontzi komunikatuak

MARGARI MENDIA GOIKOETXEA URDIINARRA

Paella tarteko, urdindarrak moldatu dira udako festak Santa Agedarekin lotzeko. Urdiango Udalak ere San Pedro festak bertan behera utzi ditu

Alfredo Alvaro Igoa URDIAIN

Festa bezperan, festak ez daudelako penaz?

Ba, bai. Aurten batere ez. Datorren urtera itxaron beharra.

Aurreko urtetako egitarauari begiratuta, Urdiango festetan egunero dago bazkari edo afariren bat, ezta?

Bai. Larunbatean beti presoen aldeko afariarekin hasten gara. Igandean mundu guztia San Pedrorako joaten gara. Astelehenean gizonezkoen bazkaria egoten da. Asteartean emakumezkoen bazkaria. Eta asteazkenean denok, herri guztia, elkartzen gara, gazteak eta adinekoak, gizonezkoak eta emakumezkoak.

Zer nolako harrera du festetako azken eguneko bazkariak?

Hirurehun pertsona inguru elkartzen gara, hor nonbait. Giroa sortzen da eta jendea oso gustura egoten da. COVID-19 horrek plan guztia izeratu digu. Aurten festarik ez dagoela eta jendea penaz egonen dela pentsatzen dut.

Noiztik egiten da herri bazkaria festak despeditzeko egunean?

Herri bazkaria betidanik egon da, baina kuadrillak egiten zen. Duela 13 edo 15 urte, hor nonbait, jendea inplikatzeko herri bazkaria egiten hasi ginen. Biltzen den dirua herriko beste ospakizun batzuetan erabiltzeko. Herri bazkari horrekin beste festa batzuk autogestionatzen dira.

Non egiten da bazkaria?

Eguraldi ona egiten badu plazan, eta txarra egiten badu frontoian, ez zaigu besterik gelditzen. Plazan eguzkiak jotzen duenean jendeak asmatzen du itzala nola bilatu.

Urdindarrak egindako paellak Euskal Herri guztian ezagunak bihurtu dira. Egun horretan ere sukaldean lanean ibiltzen zarete?

Hirurehun pertsonari jaten emateko jendea behar da. Herrikoak inplikatu, adin askotakoak... Hurrengo urtean Santa Ageda egiten zutela 25 urte beteko dutenez



Margari Mendia Goikoetxea plazako Benignoren oroigarriaren ondoan.

"BAZKARIRAKO JENDE MORDOA BEHAR DA. BAZKALTZEN ETA LANEAN, HEMEN DENA DA AUZOLANA"

baliatzen gara. Horiiek talde motorra dira, eta gero jende gehiago. Hori aurrera ateratzeko jende mordo behar baita. Bazkaltzen eta lanean, hemen dena da auzolana. Gutxienez 25 bat egoten dira lanean. Eta, gero, denon artean biltzen dugu.

Zein izaten da menua?

Sarreraren bat, paella eta izozkia edo horrelako zerbait. Paella batzuetan arrainarekin eta besteetan haragiarekin egina.

Bazkaldu ondoren kantuak, mahai jolasak edo zertan ibiltzen zarete?

Bazkaldu ondoren, dena bildu bitartean, jendea hizketan egoten da. Gero txaranga hartu eta herriari buelta ematen diogu. Etxez etxeko erronda egiten dugu eta jendeak oso gustura pasatzen du. Geldialdiak kaleka egiten ditugu. Saiatzen gara ematen, baina inoiz ez diogu herri guztiari buelta ematen. Azkenean denbora pa-

satzen da, baina bueltatxo bat ematen dugu.

Jendea nola janzten da, festetako atorrarekin, moztortuta?

Betiko arroparekin, ez dugu festetarako arroparik.

Bazkariarekin diru pixka bat ateratzen da. Eta horrekin zer egiten duzue?

Santa Agedatan beste jai egun bat egiten dugu. Garai batean Urdiainen Santa Agedak oso famatuak ziren. Gero galdu egin ziren. Hemen kintoek betidanik ospatu dute Santa Ageda egunaren hurrengo larunbatean. Kuadrillek bazkariak egiten zituzten. Herriaren kintoak ere ospatzen dira Santa Agedako asteburu horretan. Kuadrilla bazkariak egiten ziren eta pentsatu zen beste jai egun bat egitea festetan ateratzen den diruarekin. Orain oso giro polita dago eta jende ugari hurbiltzen da. 150 pertsona egoten dira herriaren bazkaltzen eta gero juergan. Bakoitza bere kintarekin. Batzuk adin askotakoak elkartzen dira, baina gehienak adin berekoak izaten dira. Izugarritzko indarra hartu du egunak. Urteko kintoak ostiraletik igandera daude. Larunbatean 25 urte betetzen dutenak zortzikoa dantzatzeko dute

eguerdian. Ondoren bermuta, bazkaria eta gero juerga.

Nolaz edo nori sortu zitzaion Santa Ageda eta San Pedro ospakizunak bazkari baten bidez lotzeko ideia?

Santa Ageda batzuetan hasi zen, Benignoren kuadrillak 25 urte egiten zituen. Bazkaria egin eta gero Tintinurri elkarteak, beiraiek bere kontu, musika jarri zuten eta herria dantzatzera gonbidatu zuten arratsaldean. Giro oso polita sortu zen. Festak ailegatu zirenean Benignok pentsatu zuen: kuadrillak egin beharrean asteazkenean herri-bazkaria egiten badugu, eta gero diruarekin Santa Agedatan bi tabernetan musika jartzen badugu? Ideia aurrera atera zen, eta horrela lotu zen Santa Ageda festetako azken egunarekin.

Taberna bakarra daukazue orain, elkarteren batean ere jartzen duzue?

Hainbeste jenderendako bi toki behar ziren eta hasieran Aitziber elkarteak eta Gure Toki tabernan hasi zen. Geroago Kaluxa taberna ireki zuten eta han eta Gure Tokin hasi ziren musika jartzen. Orain Gure Toki itxita dago eta moldatu behar dugu. Musika urtero ordu berean toki berean ez egoteko txandakatu egiten dugu: urte batean arratsaldez taberna batean, eta hurrengoan gauetz eta alderantziz.

Bazkariako Santa Agedako musika pagatzen du bakarrik?

Dirua sobratzen bada gordetzen da. Duela urte batzuk Albaolakoek egurra emateagatik sarrerak eman zizkieten udalei. San Juan baleontzia bisitatzea interesgarria izanzen zela iruditu zitzaigun, eta dirua zegoenez, hura ikusteko bi autobus bete genituen. Egun oso polita pasa genuen. Zer aukera dauden begiratu, eta horrelakoetarako ematen du.

Aurten bazkaria ez dagoenez, heldu den urteko Santa Agedetako musikarekin zer gertatuko da?

Diru guztia gastatu gabe. Baina, ea ospatu ahal dugun! Ez dakigu otsailean nola ibiliko garen.

Zalantza bat. Korrika guztietan "urdindarrek" km bat erosten dute. Dirua festetako bazkaritik sortzen da?

Ez, horretarako beste afari edo bazkari bat egiten dugu eta horik ateratzen dugu km-a pagatzeko dirua.

Andramautuko festak ere hor daukazue?

Ikusi behar. Segur aski panorama orain bezalakoa izanen da. Honek luze-luzera doala dirudi.

Aralar eta haurrak lagun egiteko garai hobeen zain

Aingeruari haurrak aurkezteko ekitaldia 19an egitekoa zen, baina behar bada irailean egiten da

SAKANA

Azken urteetan haur samalda aurkeztu diote Aralarko aingeruari. Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak urtero antolatutako Aingeruari Haurren Aurkezpenean izaten da hori. Aurten 17. aldian izan behar zuen, baina COVID-19 gaixotasunak eragindako pandemiak ekitaldia bertan behera utzi du. Kofradiak jakinarazi zuenez, hilaren 19ko meza nagusian egitekoa zen aurkezpena, baina ezinezkoa denez, irailean egiteko aukera ote dagoen aztertzen ari dira.

Asko eta asko dira Aralarko santutegiarekin lotura berezia duten familiak. Arrazoi ugari daude: fedea, familia tradizioa, bataioa han hartu izana edota bertan ezkondu zirela. Elizak araudia aldatu zuen eta bataioak norberaren herrian egitea ezarri zuen. Etena bideratzeko Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradia haurren aurkezpen ekitaldia antolatzen hasi zen. Ekitaldia igandeko meza nagusian egiten da. Haurrak aingeruari aurkeztu, hurrei hura gurtzeko aukera ematen zaie, eta, akaberan, Aralarko aingeruaren lagun dela adierazten duen pergaminoa jasotzen dute.

Urdiainen eta Etxarri Aranatzeko festak bertan behera

Urdindarrak asteburuan sanpedroak ospatzekoak ziren. Etxarriarrak, berriz, agorrileko lehen astean festak eta 15ean Ama Birjinaren eguna zuten festa egutegian. Baina ospakizun horiek guztiak bertan behera gelditu direla jakinarazi dute bi herrietako udalek. Pandemiaren zabalkundea murrizteko neurri gisa hartu dute erabakia.



Sakanako eraldaketa gunean, Dinabiden, bildu zen Sakanako Sozioekonomia Behatokia herenegun. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

"2021ean berri nahi genuke Plan estrategikoa"

IKER MANTEROLA MATXAIN SAKANAKO GARAPEN AGENTZIako ARDURADUNA
Pandemiak baldintzatzen ez badu, behintzat, hori da Sakanako Garapen Agentziaren aurreikuspena. Aurre lanketa gisa Sakana Aurrera Begira dinamika dute webgunean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
COVID-19ak markatutako testu-guruan egin zenuten bilera. Zein analisi egin zenuten?

Zuk esan duzun bezala testu-guru oso-oso berezia da. Horren adierazgarria da bileraren planteamendua nolako izan zen. Duela bi urte indarrean den Sakanako Plan Estrategikoari (SPE) egokitzapen batzuk egin genizkion. Hasiera batean, behintzat, heldu ziren urteetarako egokitzat jotzen zen. Orain gertatu denarekin egoera hori bir-

planteatzea dagokigu. Aurrera begirako hausnarketa ariketa egin zen: zer inpaktu aurreikusten diren, etorkizunean zein oinarriren gainean lan egin beharko genukeen etorriko den SPEn...

"EGIN GENION EGOKITZAPENAREKIN BI URTERAKO BIZIA EMAN GENION, BAINA EGOERA HONEKIN..."

Nondik gatzoz?

2008ko krisiaren ondoren hainbat arlotan behintzat erreperazioa ikusi da. Baina oraingo krisi honekin ikusten da litekeena dela aurrera begira berriro ere 2008an izan zenaren antzeko ekonomia krisia etortzea. Bestalde, hainbat gizarte krisi ere aurreikusten dira. Zaintzarena nabarmen agertu den elementuetako bat da.

Aurten zer da egindakoa?

COVID-19 etorri arte aurreko proiektuekin lanean geunden, gero bi arlo landu genituen. Ba-

tetik, zaintzan, makerrak koordinatzea eta osasun arloari lotutako beste proiektu batzuk lantzen aritu gara. Eta, bestetik komunikazioa. Batez ere enpresa txiki eta autonomoei bideratutako lanketa egin dugu, egon den informazio uholde hori nolabait haiengana bideratzeko. Eta banan banan hots egiten egon gara. Egoera honek gure enpresa eta autonomoei nola eragin dien jakiteko informazioa jaso dugu. Zer nolako inpaktua izan den aztertzeko eta jakiteko aurrera begira horien neurrirako zein politika landu litezkeen. Nafarroako Gobernuarekin informazio hori partekatzeke lana egin dugu, Sakanan zein egoera bizi den jakin dezan. Orain lan dinamika berreskuratu eta lehengo proiektuak berriro martxan jarriko ditugu. Beti ere moldagarritasunarekin.

Zein da ekoizpen ehunaren egoera?

Mundu guztia zain dago. Orain arte eskariak zituzten batzuk eskariak ateratzen ari dira, baina epe ertainera ezjakitea erabatekoa da. Sakanako enpresak mundu mailako balio kateetan daude kokatuta. Azkenean, zure enpresako hornitzailea izan edo zure eroslea izan, mundu mailako mugimenduak mugatu diren heinean, lanean dabiltza, baina ziurgabetasun handia dago. Hori nahikoa orokortua da beste toki guztietan ere.

Zein ildo landuko dituzue?

Orain arte izan direnak: industria, energia, turismoa, elikadura eta komertzioa. Horiek mantentzen ditugu. Baina birmoldatzean egindako diagnostikoan identifikatutako klabeak egoera honekin nola indartu diren, esaterako, digitalizazio eraldaketaren beharra. Enpresetara zetorren gauza bat zen, bertan zegoen, baina honek ezarpena azkartu du. Sakanako enpresek moldaketa azkarragoa egin beharko dute. Bestetik, enpresen arteko elkarlana indartzen jarraitzea. Egoerara moldatuz, baina oinarriak oso antzeko mantentzen dira. Etorkizunera begirako hausnarketan artean hainbat gai atera dira, esaterako, etxebizitza;

"PLAN ESTRATEGIKOA SAKANA GUZTIAREN DA, ERAGILE GUZTIONA; BATERA ARRAUN EGITEKO TRESNA"

bai bertakoendako, bai kanpoendako, kanpotik jendea erakarri nahi badugu, batez ere trebakuntza handiko jendea erakartzeko. Bestalde, mugikortasuna.

Plan estrategikoaren izenean 2014-2020 datuak agertzen dira. Zein asmo planarekin?

Gure asmoa zen egin genion egokitzapenarekin beste pare bat urterako bizia ematea. Baina oraingo egoerarekin iruditzen zaigu berriro ere prozesu oso bat egin beharra dagoela. Oraingo behintzat gure aurreikuspena da heldu den urtean SPE berrietzeko prozesua abian jartzea. Baldintza guztiekin. Behar diren aspektuak berregokitu. Eta Nafarroako Gobernuarekin zer nolako harremanak izan daitezkeen. Bere garaian Sakanak Nafarroako beste eskualdeak baino lehen eta Nafarroako Gobernuak herrialdeko estrategia adimentsua garatu aurretik ezarri genuen SPE. Beraz, bestelako estrategiek bateratu eta, batez ere, egoera honetara moldatuta. **Bakoitza beretik, ahaleginak lerrokatzea izanen da, ezta?**

Hori da. 2008an egin genuen bezala. Esan genuen: hau da denon artean adostutako bide orri bat eta bakoitzak bere eskumen, ahalmen eta gaitasunen arabera denok bide orri horri arantzun behar diogu. Aurrera begira ere planteamendua bera izanen da. **Bitartean zuen webgunean Sakana Aurrera Begira hausnarketarako tartea zabaldu duzue.**

Bizi dugun krisi honen aparra jaisten utzi nahi dugu eta SPE garatu nahi genuke lasaitasun gehiagorekin. Baina, bidean, iruditzen zaigu momentua dela hainbat hausnarketa partekatzeke eta plazaratzeko. Dinamika horren helburua da etorkizuneko SPE horretan landu beharreko gaiak, hausnarketak, eztabaida egituratu baten moduan lantzea. Horretarako behatokia parte hartzen duten eragile guztiak gonbidatu ditugu idatziz beraien hausnarketak partekatzera, eta www.sakanagaratzen.com webgunean jartzen ari gara. Bestelako modu batzuen bidez ere landu nahi genituzke dinamika horiek eta, batez ere, gizarteratu. Helburua da heldu den urtean SPEn hazia erein aurretik belar txarrak kendu eta lurra girotzen jartzea. Ekarpenguztiak ongi etorriak izanen dira.

Osorik: www.guaixe.eus



Josetxo Etxabarri, Juan Urrea, Carmelo Navarrete eta Jose Julian Imaz, udalak utzitako bajeeran, sailkatutako kutxen aurrean.

Sakanatik mundura

Ayuda Contenedoresek Altsasun daukan delegazioan makina bat arropa eta material jasotzen dira. Munduko hainbat txokotara bidaltzen dira ondoren. Boluntarioek gure etxeetan bilketa egiten jarraitzeko eskaria egin dute

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Duela bost urte inguru zenbait sakandar Ayuda Contenedores gobernuz kanpoko erakundearen boluntario lanetan hasi ziren. Jubilatutako berriak eta aurretik erretiratuak ziren, eta zerbaitean laguntza eman nahi zuten. Ayuda Contenedores (www.ayudacontenedores.org) denetarik material bilketa egiten du, eta logistika laguntza eskaintzen die beste talde eta erakundeei, materialez betetako edukiontzien bidalketa egiteko. Garapen bidean dauden herrialdeei giza laguntza emateko proiektuekin lotuta dauden ekimenak dira taldeak laguntzen dituenak, eta uanean sortzen diren krisiak.

"Erakundeak proposatu zigun ea zergatik ez genuen Sakanan delegazio bat zabaltzen. Horrela, Altsasuko Zumalakarregi plazan utzi ziguten bajera batean hasi

ginen lanean. Ondoren, Altsasuko Udalarekin hitzarmena egin genuen, eta udalak Frontoiko Zeharbideko 14. zenbakian duen bajera utzi zigun, Gertu burdindegia parean. Ordutik, asteazkenean, Altsasuko azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara mota guztietako material bilketa egiten dugu han, beharra dagoen tokietara edo eskatzen diguten tokietara bidaltzeko" azaldu digu Jose Julian Imazek, materiala sailkatzen ari dela. Berarekin batera Juan Urrea, Josetxo Etxabarri, Luis Iradi eta Carmelo Navarrete daude lanean.

"EZ DA INOLAKO BEREIZKETARIK EGITEN; ESKATZEN DUEN GUZTIARI EMATEN DIOGU"

"Hemen ez dugu inor baztertzen, boluntario lanak egin nahi dituenak ateak zabal zabalik dauka" diote guztiek.

Urteekin erreferente bilakatu dira. "Sakanako jendea Altsasuko azokara etortzen da eta bidaiak aprobetxatzen du gurera ekartzeko etxean behar ez dituenak. Horregatik aukeratu genuen asteazkena zerbitzua emateko" dio Etxabarrik. Astero zabalik dago egoitza; soilik konfinamenduaren garaian egon zen itxirik, baina ekainerako lanean zeuden berriro. "Konfinamenduan garbiketa egiteko aprobetxatu du jende askok eta izugarri nabaritzen da: material pila bat ekarri digute" gaineratu du Urrak. Harrigarria da jendearen joan etorria. COVID-19 birusarengatik jarraitu beharreko protokoloa segiz, poltsak ukitu gabe izaten dituzte aste batez, berrogeialdian.

Denetarik biltzen dute

Astea pasatu eta gero, poltsak zabaldu eta egoera kaxkarrean dagoena alde batean uzten dute, birziklatzeko. Egoera onean dagoena, kaxetan sailkatzen dute. "Emakumezkoaren neguko arropa, hango kaxan; emakumezkoaren udako arropa, bestean; eta berdin gizonezkoen eta haurren arroparekin, negukoa eta udakoa banatuta. Gero, hango kaxetan, izarak eta mantak sartzen ditugu; haietan zapatak; bestean, eskola materiala eta jostailuak eta aparte bizikletak, gurpildun aulkiak... guztia da ongi etorria" azaldu du Juan Urrak.

Jasotako kaxak Ayuda Contenedoresek Etxabakoitzen dituen gunera eramaten dituzte, Gertu burdindegia eta Burunda zurgindegia uzten dizkien furgonetetan. Etxabakoitzen, bestelako materiala biltzen da ere. "Adibidez, ikastetxe, erresidentzia, enpresa edo ospitale batek aldatetako egiten baditu, material hori guztia biltzen da: oheak, ikasmahaiak, aulkiak, arbelak, ikastetxeetako materiala... denetarik. Etxabakoitzen, erabakitzen da materiala nora bidaliko den, beharren arabera" dio Jose Julian Imazek.

Nora doaz edukiontzia?

Joan den urtean, Nafarroako Ayuda Contenedores taldeak 33 edukiontzi bidali zituen munduko hainbat txokotara: Togo, Sierra Leona, Cabo Verde, Honduras, Tanzania, Peru, Senegal, Camerun, Cabo Verde, Malaga, Mozambique, Guatemala eta Siria, besteak beste. Zerrrendan dute jaso, txukun txukun, edukiontzia zein datatan bidali zituzten, nora eta zein gobernuz kanpoko erakunde (GKE) antolatuta. "Laguntza eskatzen diguten toki guztietara bidaltzen da materiala, ez dugu inolako bereizketarik egiten" nabarmentzen du Imazek. Iturmendira adingabeak ekarri zituztenean ere behar zuten arropa eta bitartekoak eman zituen Sakanako taldeak. "Eskatzen duen guztiari ematen diogu" gaineratzen du Urrak.

"SAKANDARRAK ERABILTZEN EZ DUTENA HONA EKARTZERA ANIMATZEN DITUGU"

Edukiontzia bidali ahal izateko diru bilketa Iruñeko egoitzan egiten dute. "Guk behin bakarrik egin dugu diru bilketa, 2017an Manchayra (Peru), edukiontzi bat bidali ahal izateko. Bertan Olaztiko moja batzuk daude lanean eta oheak, elikagaiak, Iruñeko ikastetxe bateko materiala, bizikletak, arropa... denetarik bidali genuen. Edukiontzia bidaltzea 2.800 euro ziren, baina kontinente aldatuta zegoenez edukiontzia sulfatatu beharra zegoen, gaixotasunak ekiditeko. Hori 100 euro pasa ziren. Horri egin beharreko aseguru eta burokrasia kontuak gehituta... 3.000 euro inguruko kostua zuen guztira. Enpresetan 6.000 euro lortu genituen, eta soberan geratu zen dirua Manchayko kongregaziora bidali genuen. Auditoria pasa genuen, guztia argi geratzeko. Baina guk egunerokoan soilik material bilketa egiten dugu; Iruñean egiten da edukiontzia bidali ahal izateko diru bilketa eta edukiontzien tramitazio, dokumentazio eta burokrasia lan guztia" azaldu du Imazek, Perura bidalitakoaren argazkiak erakusten dizkigun bitartean.

Ekainaren 20an edukiontzi bat bidali zen Hondurasera eta beste bat Mozambiquerara; ekainaren 13an bi edukiontzi atera ziren Siriarantz, eta ekainaren 6an beste bat bidali zen Ghanara. Azken hau Athletic-eko jokalaria Iñaki Williamsen finantzatu zuen. "Bere familiaren herrian eraiki duten eskola batera bidali zen edukiontzi hori. Iruñeko zenbait ikastetxetako aulkiak, arbelak, zabuak eta mahaiak, eta bizikletak, arropa... denetarik joan zen, baita Altsasun jasotako material asko ere" kontatu digu Imazek. Edukiontzia larunbatetan kargatzen dira, eta ahal dutenean kargatzen laguntzera joaten dira.

Sakandarrei deia

Lan handia egiten dute Ayuda Contenedoresko boluntarioek. "Jubilatuak gaude, bospasei elkartzen gara, konpromisoa hartu genuen eta ahal duguna laguntzen dugu. Lan sozial polita da. Konfinamenduaren ondoren martxan gaude, topera, eta etxean erabiltzen ez dutena hona ekartzera animatzen ditugu sakandarrak, beste erabilera bat izan dezaten. Bide batez, euren eskuzabaltasuna eskertzen dugu. Laguntzeko aukera dugun bitartean, hala egin dugu" aitortu du Urrak.

Gamesa-Agoitz itxi eta sakandarrak langabeziara

Gamesak Altsasuko lantegia 2010ean ixtean Sakanako hainbat langile Agoitzen birkokatu zituen

SAKANA

Siemens Gamesak Agoizko lantegia itxiko duela jakinarazi zuen asteartean. Gamesak lehiakortasuna (kostu handia) eta kokapen arrazoiak (Bilboko portutik 200 km-ra egotea) argudiatu ditu

lantegia ixteko. Enpresak hartutako alde bakarreko erabaki hau salatzean bat egin dute langileek, sindikatuak eta instituzioek. Langileek uste dute enpresak ekoizpena Portugalera lekualdatu nahi duela. Halaber,

enpresak atzera egin eta fabrikak irekita jarraitzeko ahalegin guztiak egingo dituztela nabarmendu dute alde guztiek.

Siemens Gamesak Agoitzen duen lantegian 239 langile ditu eta tartean makina bat sakandar daude. Izan ere, Gamesak 2010ean 150 langile zituen Altsasuko Fiberblade itxi zuenean, urte hartan bertan ireki zuen Agoizko lantegian jarraitzeko aukera eman zien 55 langile sakandarri (14ri Imarkoainen), eta hala egin zuten hainbatek. 10 urte beran-



Fiberbladekoak Iruñera oinez joan ziren.

duago, langile sakandar horiek kalean gelditzeko arriskuan daude. Okerrenean ere, langileei ez zaie beste enpresa batera lekualdatzeko aukerarik eman.

Siemens enpresak 2017an erosi zuen Gamesa, eta Langile Bartzordean gehiengoa duen ELA sindikatuaren ustez, deslokazioaren abiapuntua Siemens multinazionalak kontrola hartu zuenean sortu zen. ELA sindikatuaren iritziz, Agoizko lantegia bideragarria da eta lan karga du. Fabrika martxan dago.

Euskara ikasleek dirulaguntzak eska ditzakete Mank-en

Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak. Euskara ikasi edo alfabetatzeko lau modu dira. Joan den urteko garilaren 1etik asteartera arte halakoren bat egin duten sakandarrek Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren dirulaguntza jasotzeko aukera dute. Hori bai, matrikula-gastua da lagunduko dena, ez kilometrajea.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 25.000 euro bideratu ditu dirulaguntzak emateko. Onuradunek, gehienez ere, 500 euro jasotzeko aukera izanen dute. Laguntza eskabidea egiteko aurkeztu beharreko agiriak dira: eskabide ofiziala beteta, eskatzailearen nortasun agiria kopia, erroldatze ziurtagiria, euskaltegiak eginiko asistentziaren edo aprobetxamenduaren ziurtagiria, matrikularen ordainagiria eta beste administrazio edo erakunde pribatu bati helburu berarekin dirulaguntza eskatu bada, horren aitorpena.

Altsasuko aparkaleku berriko lanak hasi dira

Zelandikoaren (47 autorentako lekua) eta San Joan eta Altzania kaleen artekoaren ondoren (25 autorentako lekua), Altsasuko hirugarren aparkaleku publikoa egiteko lanak joan den astean hasi ziren. Ibilgailuendako aparkaleku publiko berriak 66 plaza eta behar bereziak dituztenendako beste hiru plaza izanen ditu, 69 guztira. Irailean mustuko da.

San Donato eskola proiektu pilotu baten partaidea

Emozio hezkuntza heziketa esparruan garatzeko proiektu pilotuan parte hartuko du heldu den ikasturtean Etxarri Aranazko eskola publikoak, Nafarroako beste 11 ikastetxerekin batera. Helburua da ikasleen, irakasleen eta ikastetxeetako komunitate osoaren emozio ongizatea lantzea. Eskolaren eraldaketa prozesu pedagogiko baten zati da.

Adur, Jokin eta Oihan gaur 3. graduan aterako dira

Altsasuko auziagatik preso dauden Adurri, Jokini eta Oihani atzo jakinarazi zieten 3. gradua onartu diela epaitegiak. Beraz, 1328 egunen ondoren Jokin eta Oihan kalera aterako dira, Adurrek aurreko astean baimena jaso baitzuen. 2. graduan Jonan eta Julen gelditzen dira (794 egun preso). Baimenak izateko eskaerak egin dituzte biek ere.

Ur araztegiko lanak emateko deialdia egin du Nilsak

Nilsa enpresa publikoak Olatzagutiko ur araztegiko lanak emateko deialdia egin du. Lan horien bidez, hondakin uren tratamendurako egungo instalazioaren eraberritze integrala egin nahi du Nilsak. Egungoaren ondoan beste planta bat eraikiko da. Behin araztegi berria lanean hastean gaur egun dagoena bota egingen dute fintze urmaela egiteko.

Ireki Sakanako leihoa mundura

Udako ale berezia uztailearen 31an

Jarri gurekin harremanetan: publi@guaixe.eus | 661 52 32 45

PUBLIZITATEA

guaixe fundazioa

guaixe SAKANAKO ASTEMARRA

Maidet Betelu Ganboa IRURTZUN

Asteazkenean 25 urte beteko ditu Dani Saldise areto futbol jokalaria irurtzundarrak. Bere betiko herriko taldea utzi, eta oraindik ofiziala egin ez bada ere, Inter Movistar taldeko jokalaria izango da datorren denboraldian. Pena eta ilusioa, bi emozioak aldi berean borborka dituela aitortu du, eta orain atsedean hartu nahi du, ibilbide berrirako prest egoteko.

Noiz hasi zinen areto futbolean?

Nire lehendabiziko pausoak baloi bati itsatsita eman omen nituen. Txikitan, auzoan, areto futbolearen aritzen nintzen eta nire anaia Javi jokatzeko ikustera joaten nintzen. 5 urterekin herriko areto futbol taldean hasi nintzen klaseko lagunekin, eta talde hura Xota dela jabetu nintzen. Aldi berean, pilotan ibili nintzen. Irurtzunen pilota eta areto futbola txikitatik pasioz bizitzen dira. Egia esan, pilota gustuko nuen, ongi aritzen nintzen, baina aukeratu behar izan nuen eta areto futbolaren alde egin nuen, baloia-aren maitale amorratua naizelako. Gogoan dut txikitan poltsa baten barruan baloia eramaten nuela, eta poltsari ostikoak ematen joaten nintzela eskolara. Atsedendian jokatzeko gogoa, ondoren entrenatzera joaten nintzen, entrenatu ondoren ere futbolera... egun osoa baloiarekin. Eta, azkenean, nire bizitzaren zati garrantzitsua bilakatu zen, nire bizitzeko modua izan arte.

Areto futboleko Xotako kategoria txikitatzen hasi eta gutxika goraka egin zenuen, Javi anaia-aren pausoak jarraituz. Noiz konturatu zinen areto futbola ez zela joko hutsa eta aurrera egiteko aukera zenuela?

Ez nuke jakingo esaten zein izan zen une zehatza, prozesu luzea da. Txikitatik ongi ibiltzen nintzen areto futbolearen eta taldean nabarmentzen nintzen. Osasunatik deitu zidaten probak egiteko. Ez zen atera, eta Xotara itzuli nintzen. Xotan nengoela, futbolearen probatzea erabaki nuen Amigo taldean. Lau urte haietan, Amigon futbolearen jokatzeko aparte, eskolako taldearekin entrenatzen uzten zidaten, hau da, Xotarekin. Orduan konturatu nintzen gustuko nuen areto futbola zela. Kadeteen mailan futbola utzi eta Xotara itzuli nintzen, gustura. Eta handik aurrera gora egin nuen, Nafarroako selekzioetik deitu ninduten eta kadetea nintzela ere Xota B tal-



Dani Saldise, El Pozo Murciako bi jokalaria atzean utzita, atzean Roberto Martil kapitaina duela. JESUS AGUIRRE

"Burua tente noa, talde honen alde guztia eman dudalako"

DANI SALDISE MARTINICORENA OSASUNA MAGNA XOTAKO JOKALARIA

ARETO FUTBOLA Herriko betiko taldea utzi, eta oraindik ofizialki konfirmatu ez bada ere, Inter Movistar talde ahaltsuan ariko da hegal irurtzundarra

dean aritu nintzen. Inflexio puntua lehen taldean entrenatzera joateko deitu zidatenean izan zen.

Noiz deitu zizuten Xotako lehen taldetik?

16 urte nituela deitu zidan lehengoz Imanol Arregik lehen taldearekin entrenatzera joateko. Gogoan dut klasetik atera nintzela eta Roberto Martil "Palote"-k eraman ninduela. Gogotsu nengoen, baina, aldi berean, oso urduri, eta bihotza taupaka nuen, orduko 200 pultsazioetara, zinez

(kar, kar...). Une hartan pare bat entrenamendu egin nituen. Imanolek bikain egin zuen, taldean integratu ninduen. Hurrengo urtean Imanolek lehen taldearekin egunero entrenatzera joateko deitu zidan, taldean behar bezala integratzeko. Partida bateko deialdi batean ere sartu ninduen. Eta hurrengo urtean talde nagusiarekin jokatzeko hasi nintzen.

Noiz debutatu zenuen?

17 urte nituela, Errege Kopan, Sevillan. Ligako lehen partida

18 urte nituela jokatu nuen, etxean, Jumillaren kontra. Bi partidak ongi gogoratzen ditut; disfrutatzen da, baina beste modu batean. Ezingo nuke bat aukeratu, sentsazioak bereziak izan ziren.

Xota 2009/2010ean ligako txapeldunordea izan zen, 2017an Errege Kopako finala jokatu zuen -bi finalak El Pozoren kontra galdu zituen- eta 2018/2019 denboraldian ligako hirugarrena sailkatu zen. Xotaren urrezko garaia bizi izan dituzu.

2009/2010eko ligako finala jokatu zenean nik ez nuen Xotako lehen taldean jokatzeko, partida harmailetatik ikusi nuen. Nire ustez, han hasi ziren Xotaren urte onenak eta bizpahiru urtetan taldean sartzeko zortea izan nuen. Final hura, Javi Eseverri kapitain handiaren garaia, ondorengo 2017ko Errege Kopako finala... finean, nire irudikoz azken 10 talde hauek izan dira klubaren onenak. Taldea hazten joan da, 2018/2019ean ligako hirugarrenak sailkatu eta aurretan ere kanpaina bikaina egin arte. Meritu handikoa da.

Xota talde umila dela kontuan hartuta, meritu hori are handiagoa da. Talde handiek Xotaren aurrekontua bikoiztu eta hirukoizten dutela kontuan hartuta, gorenean egotea nabarmentzekoa da. Hori Xota klubaren eta jokalarierentzat da, baina horren guztiaren atzean mago bat badago Imanol Arregi da, dituen bitarteko xumeekin sekulako taldeak sortzen dituelako...

Hala da. Imanolek eta Miguel Hernandezek, bigarren entrenatzaileak, tandem bikaina osatzen dute. Horrenbeste baliabide dituzten taldeen kontra lehiatzeko piezak bilatu behar dira eta urtero taldeak bere burua berrasmatu behar du. Eta guk Imanoli, Migueli, juntari eta jokalariei esker lortu dugu hori. Izan ere, urrezko garaia hauetan jokalaria bikainak izan dira taldean, beti sekulako mailan jokatu zuen Javi Eseverri kapitaina zenetik hasita, bere tokia hartu zuen Roberto Martil "Palote"-rekin jarraituz -errelebo bikaina, nire ustez-, eta Rafa Usin, Araça, Eric Martel, Asier Llamas atean eta ni bezalako jokalariekin segiz, urte hauetan ni neu ere jokalaria moduan hazi bainaiz. Berrasmatzeko talde bikaina izan da hau. Titulu bat lortzea falta izan zaigu, baina nik beti esaten dut talde honetatik eramaten dudana titulurik onena nire taldekideak direla, lagun bilakatu direnak. Topikoa dirudi, baina bihotzez esaten dut.

Pena da ziklo hau titulu batekin borobildu ez izana. Play-offetako final laurdenetan Valdepeñasen kontra 0 eta 4 aurreratu eta gero azken segundotan partidak ihes egitea ederki amorraraziko zintuen, ez?

Kanporaketa hura oso mingarria izan zen, gertatu zen moduarengatik bereziki. Primerako aukera zen, ia bakarra, baina, egia

esan, play-off oso arraroa izan da aurtengoa, COVID-19ak sortutako egoerak baldintzatutakoa. Uste dut, urteak pasa ahala, bukaeraraino bizirik iritsi izana baloratuko dugula; nolahi ere, agerian geratu da Valdepeñas talde oso ona dela.

Sei jokalar ezinbestekok utziko duzue Osasuna Magna Xota: Araçak, Rafa Usinek, Eric Martelek, Mario Almagrok, Alex Llamasek eta zuk. Taldearen ziklo bat despeditzen da, baita zuretzat ere, maila pertsonalean. Beti etxeko taldean jokatu izan duzu, baina hurrengo denboraldian beste talde batean ariko zara, talde handi horietako batean, gainera. Giroz aldatzeko beharra duzu?

Beste talde batera joatearen arrazoi nagusia izan da nik beti jokalar moduan hazten jarraitu nahi dudala, eta horretarako aukera ezin hobea iritsi zait, une egokian. Nik uste dut nire jokatze moduarekin bat datorren talde batera noala; beti egon izan nahi dut talde horretan. Taldeak datozen egunotan emango du albistea modu ofizialean. Uste dut aldaketa egiteko une perfektua dela hau: 25 urte beteko ditut, adin egokia, jokalar moduan heldutasun handia dut eta betiko klubetik irten eta beste erronka batzuei ekiteko gai ikusten dut neure burua. Ongi edo gaizki aterako da, baina ez dut probatu ez izanaren sentsazioarekin geratu nahi. Nire betiko klubaren alde, armarr honen alde dudana guztia eman dut, horrela eraku-

"XOTATIK ERAMATEN DUDAN TITULURIK ONENA NIRE TALDEKIDEAK DIRA, LAGUNAK DIRENAK"

"JOKALARI MODUAN HAZTEN JARRAITU NAHI DUT, ETA AUKERA EZIN HOBEA IRITSI ZAIT, UNE EGOKIAN"

"ALDE BATETIK PENA DUT, BAINA BESTETIK DENBORALDIA HASTEKO IRRIKAN NAGO"

tsi dut egunero. Burua tente eta kontzientzia lasai dudala noa, talde honen alde guztia eman dudalako, gauzak ongi egin ditudalako eta beti aurpegia eman dudalako.

Xotaren afizioa lehen mailako onenetakoa da, onena ez bada. Hasiko duzun bilbidean zale berdeen babesa alde ez izatea kostako da, ezta?

Bai, zinez, Xotaren zaletuekin erlazioa oso berezia baita. Anaitasun jokatzea eta bertan dauden 3.000 zaleen artean nire familia, lagunak eta 5 urte nituetik nirekin egon den jendea ikustea, eta gola sartzean nik maite dudana jendea dagoen izkinara joatea... horien guztien falta nabaritu dut. Talde berriko zaleek ere neu babestea espero dut, ni fitxatzen okertu ez direla erakusteko.

Talde berriarekin Anaitasunarekin etorriko zaren lehen aldia arraroa egingo zaizu.

Sentsazio arraroa izango da. Egia esan, partida hori noiz jokatuko den jakiteko gogo handia daukat, berriro Anaitasun nagoela ikusi eta nerbio horiek sentitzeko. Profesionalak gara, hori beti, baina partida horretaz gozatzeko gogoia dut. Oraindik ez dakigu noiz hasiko den denboraldia, baina uste dut abuztuaren hasieran ekingo diogula aurre denboraldiari. Beraz, orain 4 aste ditut atseden hartu eta pilak kargatzeko, buruz bereziki, denboraldia indartsu hasteko.

Zein sentsazio dituzu? Pena etxeko betiko taldea utziko duzulako? Poza esperientzia berriaz gozatuko duzulako?

Alde batetik, pena handia dut, denboraldia nola bukatu den ikusita batez ere, baina, bestetik, denboraldia hasteko irrikan nago. Betidanik bete izan nahi dudana erronka da, eta hasteko gogotsu nago.

Tatono, Imanol eta gainontzeoak Osasuna Magna Xota taldea birdiseinatze lanetan murgilduta daude. Noizbait taldera itzultzeko atea zabalik utzi duzu?

Inoiz ez dut etxeko taldera itzultzeko atea itxi; nork daki zer gertatuko den!

Xotaren zein oroitzenekin geratu zara?

Une asko datozkit burura, baina Errege Kopako finalarekin geratuko naiz, El Pozo Murciaren kontra galdu, baina gure zale guztiak gu animatzen zeudeneko unearekin. Handia izan zen.

Fabinho eta Escribano, Xotaren jokalar berriak

ARETO FUTBOLA Talde irurtzundarrak guztira lau jokalar fitxatu ditu datorren denboraldirako

Osasuna Magna Xotak Fabio Junior De Lima "Fabinho" brasildarra eta Toni Escribano madrildarra fitxatu ditu, Cesar eta Dani "Zurdo" jokalarien ondotik.

Fabinhok hegal postuan jokatzen du, eta Marreco Futsal taldeetik dator. "Aurre denboraldia hasteko irrikan nago, taldeari lehenbailehen egokitzeko" adierazi du jokalariek. Imanol Arregiren esanetan Fabinho "jokalar gaztea da, esperientzia gutxiarekin baina kalitate indibidual handiarekin. Ezberdina da, azkarra, espazio motzetan oso trebea, eta golegile petoa izan gabe, atea ikusteko erraztasuna du".

Toni Escribanok 21 urte ditu, defentsa da eta 2. Mailako Ciudad de Mostoles taldeetik dator. Estatuko areto futboleko promesetako bat da. "Imanol Arregiri eskertu nahi diot Osasuna Magnara etortzeko konbentzitu izana, oso proiektu interesgarria duen klub handia baita" azaldu du Escribanok. Imanol ere kontentua dago. "Defentsa hegala da, baloia ongi pasatzen du, oso lehiakorra da eta taktikoki oso argia. Denbora behar du, baina gure jokora azkar egokituko delakoan nago. Denboraldiko sorpresa onenetako bat izan daiteke" nabarmendu du entrenatzaileak.

TXIRRINDULARITZA **Urdiainen eta Iturmendin probarik ez**

Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak zehaztu duenez, uztailearen 11tik aurrera has daiteke txirrindularitza probak antolatzen. Beraz, Urdiainen uztailearen 3ko kadeteen eta uztailearen 4ko eskolen probak bertan behera geratu dira, baita Iturmendiko uztailearen 16ko eskolen proba eta uztailearen 17ko kadeteen proba ere.



Josema Urrestarazu eskalaten. MIKEL ZABALZA

Urrestarazuk 'Basapiztien eremua' 9a bidea kateatu du

ESKALADA 51 urterekin, 9 graduko bideak egiten dituen estatuko eskalatzailerik beterranoena da altsasuarra

Josema Urrestarazu eskalatzailer beterrano altsasuarrak 9 a zailtasuneko "Basapiztien eremua" bidea kateatu zuen ekainaren 23an Etxaurin, 90 metroko ibilbide zail, malkartsu eta gogorra. Altsasuarrak Adrian Legarraren babesa izan zuen, berak segurtatu zizkion sokak. Balentria galanta lortu du Urrestarazuk, bidea 51 urterekin egin baitu. Egun, 9 a maila gorenean dabilen eskalatzailerik beterranoena da altsasuarra estatu mailan.

"Basapiztien eremua" Josema Urrestarazuk egin duen 9 a zailtasuneko bigarren bidea da,

2014an Lezen egindako "Akelarre 9a" bidearen ondotik. Basapiztien eremua" Ekaitz Maiz eskalatzailer iruindarrak ekipatu zuen eta berak kateatu zuen lehendabiziko aldiz, 2009an. Ondoren, 2010ean Iban Larrion olaztiarrak kateatu zuen eta urte berean ere Unai Mendiak bidea egin zuen.

Urrestarazuk bizitza osoa dararama rokodromo eta paretan munduan, batetik bestera. Eskalatzailerik izateaz gain, korrikalaria, eskiatzailerik eta txirrindularia ere bada. Sarritan aitortu duenez, "kirola nire bizitza da", eta horretan jarraitzen du.



UMF AFTURELDING

Endika Galarza Islandiara

FUTBOLA Endika Galarza jokalar iturmendiarrak Islandian ekingo dio bere ibilbide berriari. Erdilari lanetan aritzen den defentsa Lakuntzako Lagun Artean, Osasun, Peña Sporten, Izarran eta Real Unionen aritu izan da, eta aste honetan 2. mailako Islandiako UMF Afturelding taldearekin kontratua sinatu du.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 3

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak, Euskal Herrira
elkarretaratzeak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasuko aske
elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Trasteandoren
erronda.
20:00etatik aurrera, herrian zehar.

ASTELEHENA 6

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Jubilatuen eta
Pentsiodunen Koordinakunde
kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi
plazan.

* Elkarretaratzeetan segurtasun neurriak bete beharko direla jakinarazi dute eragileek; maskara jartzea eskatzen dute, eta pertsonen artean bi metroko distantzia errespetatu beharko da.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Udarako hiru erronka

Uztaila bat-batean iritsi da gurera, 2020 urteko 4 hilabete arraro hauen ondoren, eta uda batean sartu gara tenperatura altuekin, baina festa faltarekin. Ezohiko uda honetan sormena erabili behar izango dugu planak egiteko garaian, eta nik erronka hauek proposatzen dizkizuet, ongi pasa dezazuen.

1. Wikimediaren argazki lehiaketa eta Euskal Herria ezagutzeko bidaia

(<https://labur.eus/wikiBizi/>): Euskarako wikilariak WikiBizi proiektua jarri dute martxan. Proiektu honetan, udaz gozatzeko bi aukera polit daude. Lehenengoa, hiru atal dituen argazki lehiaketa da; ondarea, natura edo kultura gaiak hizpide hartuta, eskatzen diguten argazkia ateratzea, adibidez, Euskal Herriko monumentu baten argazkia izan daiteke, zein da Sakanako monumentu politena? Sari bikainak daude. Eta, gainera, gizateriaren argazki artxibo aske handiena betetzen lagunduko duzu. Bigarren aukeran Euskal Herria ezagutzeko gida irekia sortzen ari dira, ibilbide sorta handi batekin. Euskal Herriko txoko ederrenak ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen digute. *Erronka: egin ezazu ibilbide bat eta egin ezazu argazki polit bat lehiaketarako. Guaixek uda guztietan egiten duen argazki lehiaketarako ere erabil dezakezu ibilbidea.*

2. Geocaching altxorraren bila

(<https://geocaching.com/>): Geocaching mundu mailako altxor bilaketa jolasa da. Munduan zehar altxor pila bat daude, ezkatututa, cacheak deiturikoak; eta pista batzuk jarraiki, plan ederra da horiek aurkitzera joatea, batez ere haurrekin egiten baduzu. Behin altxorra aurkituta, barruan cachearen ezaugarriak egongo dira eta askotan elementu bat aurkituko duzu, gauza txiki bat. Honen helburua elementua hartzea eta beste geocacheren batean uztea izango da, horrela munduan barna bidaiatu dezan. Nik adibidez, Arabako Lautadan hartutako garagardo botila baten txapa bat Eskoziako mendi batera eraman nuen, baina ez du zergatik hain urruti izan, ondoko geocachera ere eraman daiteke. *Erronka: Sakanan hamar cache baino gehiago daude. Aurki itzazu, ahal bada, bi gutxienez.*

3. Kaleko tipografia:

Gure kaleetan eta naturan milaka forma daude, eta horien artean letrak ere badaude. Adibidez, autoen gurpilak "o" dira, eta farola batek "t" forma izan dezake. *Erronka: aurki ezazu zure inguruan alfabeto osoa eta poster bat egin ezazu kaleko alfabeto guztiarekin, zure tipografia propioa sortuz. Disfrutatu uda!*

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Bungalow salgai: Acedo kanpianean, 2017 urtekoa da, berri-berria eta atondua dago. Interesatek idatzi larraunpe@gmail.com helbidera uztaillaren 18a baino lehen. Larraun Pilota Elkarte.

LANA/NEGOZIOAK

ESKAINZA

Pilota monitore gisa aritzeko aste osoko lanaldia eskaintzen da: Lanpostuari buruzko xehetasunak emailez erantzungo zaizkizu. Interesatek idatzi larraunpe@gmail.com helbidera uztaillaren 18a baino lehen. Larraun Pilota Elkarte.

IKASTAROKAK

Pandero tailerra Lakuntzan: Taldekako jarduerara izango da; maila ezberdinak, hizkuntza musikalik gabe eta adin guztietarako. Inskripzioa udaletxe web orrian.

OPATUTAKOAK

Erreka markako urrutiko agintea aurkitu nuen igandean, Etxarritik Lizarrustirako bidean. Zurea bada, deitu 948 564 275 tfnora.

Armani markako betaurreko graduatuak topatuta Etxarri Aranazko plazan maiatzeko azken asteburuan. Deitu 630 49 08 44.

LEHIAKETA

Etxarri Aranazko abesbatzaren 50. urteurrenaren logotipo lehiaketa: Edonork parte har dezake. DIN A4 formatoan (ordendorez edo eskuz eginda), bi lan gehienek aurkeztu daitezke. Saria 150 €. Lanak uztaillaren 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 tfnoan.

OHARRAK

Odol aterateak Lakuntzan: Uztaillaren 8an, 17:00etatik 20:30ra. www.adona.es/eu.

Ayuda Contenedores erakundearen material bilketa berritox: Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernu Kanpoko Erakundea material bilketa egiten hasi da berriz. Denetarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskola materiala, jostailuak, bizikletak, higiegi produktuak, haur-oihalak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenetan, azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material bilketa, Altsasuko Frontoiko Zehar-bidearen 14. zenbakiko udalaren bajejan. Poltsak itxita eraman behar dira, eta astebebe itxita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotakoa, edukiontzietan.

Adingabe atzerritarrekin egoteko boluntarioak: bakarrrik dauden adingabe atzerritarrek bizi dira Altsasun. Haiei udan akonpainamendua egiteko boluntarioak behar dira. Gizarte eta hezkuntza arloko akonpainamenduaz aparte aisialdiko jarduerak egiteko da. Altsasun, gainera, mentore izateko aukera dago. Sei elkarterekin harremanetan jartzeko: 948 239 739 edo 673 329 449 eta gestorasocial@asociacionsei.org Informazio gehiagorako: www.asociacionsei.org.

www.iragarkilaburak.eus

C.A. OSASUNA
VS
GETAFE C.F.



UZTAILAK 5, IGANDEA

19:30-21:30

(IRRATIKO KONEXIOA 19:15EAN)

EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia

107.3 FM
beleixe
ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



D
N
DE KOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarras.com
www.dekovenavarras.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Luis Jauregi Flores
Ekainaren 25ean hil zen



Agur tio Luis, zella ein biaki zu ahaztuzia.
Gui biyotzetan betiko yonen za.

Harinerako zui illebak
Etxarri Aranatz

ESKELA



Juantxo Arakama Imaz
2020ko ekainaren 25ean hil zen

Gogo, kemena eta grina, ilusioa,
indarra gure bidelagun dira.
Ametsak etengabe berrituz,
ezin gara gelditu azken geltokian.

Paturen lagunak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

ESKELA



Francisco Uriz Arteaga
'Pakito'


Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Haren aldeko hileta elizkizuna larunbatean egingo da,
uztailaren 4an, arratsaldeko 18:00etan Bakaikuko elizan

Larrañaga-Arano eta Zeberio-Arraras familiak
Bakaiku


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 3




Ipar haizeak temperaturen jaitsiera nabaria ekarriko du gurera. Noizbehinka euria ere egin lezake.

Larunbata, 4




Ipar haizearekin jarraituko dugu, baina eguzkia aterako denez, temperaturek gora egingo dute.

Igandea, 5



Eguzkitsua izango da eguna, hau dela eta, temperatura beroa izango da, baina ez da itogarria izango.

Astelehena, 6



Lainotuta esnatuko da eguna eta noizbehinka zaparradak botako ditu han hemenka. Temperatura jaitsiko da.

JAIOTZAK

- **Intza Razkin Arbizu**, ekainaren 20an Ziordian
- **Anyel Abajo Abadiano**, ekainaren 26an Irurtzunen

EZKONTZAK

- **Joaquin Gonzalez Santos eta Monica del Rio Murgiondo**, ekainaren 12an Altsasun

HERIOTZAK

- **Maria Juncal San Roman Lezea**, ekainaren 27an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Itziar Otegi Aranburu eta Sandra Garayoa Cotera Etxepare sariako irabazleak. UTZITAKOIA

'Lorerik Gorriena' albuma aurtengo Etxepare saria

Nafarroako 22 toki entitatek antolatzen dute album ilustratuak sortzeko sariketa. Sandra Garayoa Cotera eta Itziar Otegi Aranburu egileek irabazi dute aurtengo saria. Txano Gorritxoren alabaren istorioa kontatzen du ipuinak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Bizitzan gertakari handiek duten zama nabarmentzen ditu *Lorerik Gorriena* albumak, Sandra Garayoa Cotera eta Itziar Otegi Aranburu egileen lanak. 2020ko Etxepare saria irabazi du. Egileek 5.000 euroko saria jaso dute, egile eskubideen aurrerapen moduan. Pamiela argitaletxeak udazkenean albuma argitaratuko du. Guztira 35 lan aurkeztu

dira, antolatzaileen esanetan, inoizko ediziorik emankorrena. Nafarroako 22 toki entitatek antolatzen dute Etxepare saria, tartean Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak.

Lorerik Gorriena albumaren protagonista eta ardatza Txano Gorritxuren alaba da eta berak erabaki beharko du historia errepikatu edo berritu nahi duen. Etxepare sariketaren epaimahaiak azaldu duenez, ipuin

tradizionalen onena jasotzen du, eta gaur eguneraino dakartzatza: "Chesteronen esanetan, herensugea edo basapiztia gutako bakoitzarengan dago, eta literaturak haren kontra borrokatzeko zalduna eskaintzen digu. Hau izan daiteke bitartekari batek umeari ipuina kontatzerakoan erakusten ahal dion gauzarik garrantzitsuena". Bestetik, testua "sotil eta argi" idatzita dagoela nabarmendu du

epaimahaiak. Irudiak "indar handikoak" eta gama kromatikoa "oso neurtu" batekin sortu dituela gaineratu du. Epaimahaia Leire Salaberria ilustratzaileak, Idoia Sobrino liburuzainak eta Patxi Zubizarreta idazleak osatu dute.

Egileak

Sandra Garayoa Cotera eta Itziar Otegi Aranburu dira ipuinaren sortzaileak. Garayoa ilustratzailea da eta Otegi idazlea, eta Iruñeko Udalak Galtzagorri elkartearekin batera antolatzen duten Biko-teka tailerretan parte hartu zuten.

Bartzelonako Escola Massanan Diseinu grafikoan eta ilustrazioan graduatua da Garayoa. Hainbat eremutan lan egin ondoren, azkenaldian narrazioaren alorrera bideratu da eta hainbat album ilustraturen proiektuetan murgilduta dabil.

Otegi itzultzaile interpretea da lanbidez eta hainbat literatura lan itzuli ditu bai helduendako bai haurrendako. *Lorerik Gorriena* haurrendako idazten duen lehen ipuina da.

Sariak

Nafarroako 22 toki entitateen euskara zerbitzuek antolatzen dute Etxepare sariak, Pamiela argitaletxearen eta Galtzagorri elkartearen laguntzarekin. Nafarroako literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik sortu zuten sariketa, eta gaur egun, literatur lehiaketan alorrean erreferentziakoa da Etxepare. 2004. urtean sortu zuten eta lehenengo bi ediziotan haur, gazte eta helduendako literatura saritu zuten. 2006. urtetik haurrendako albumak sortzeko beka bihurtu zen, euskaraz sortutako albumen produktzioa sustatzeko helburuarekin. Ekimen berritzailea da, izan ere, euskarazko album sorrera bultzatzen duten beka edo lehiaketak urriak dira.

2009. urtetik Etxepare saria bilakatu zen; beraz, egileek bukatutako albumak aurkeztu behar dituzte. Beste alde batetik, albumak dituen ezaugarrietatik bere produktzioa garestia da eta egileek argitaratzeko zailtasunak izan ohi dituzte, eta Etxepare sariaren helburuak betetzeko, lanak argitaratzen laguntzen dute eta saritutako lana Pamiela argitaletxe nafarrek argitaratzen du.

**SANDRA GARAYOA
ILUSTRATZAILEAK ETA
ITZIAR OTEGI
IDAZLEAK LORTU
DUTE SARIA**

Txooooo!



JUANLUZENA

SAGARDOTEGIA

ZABALIK BERRIZ UDA OSOAN ZEHAR
Aldez aurretik deitu

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Aralarren, batik bat Gipuzkoako aldean, Natur parkea den aldean, gizakiaren erabileraren eta naturaren oreka ez zen egokia". Eta horren aurrean zerbait egin behar zutela pentsatu zuten Landarlan elkarteak. Protestatik harago joatea erabaki zuten, eta *Aralar, mundua lekua den lurra* dokumentala sortu zuten, Ion Fontenla lanaren zuzendarietako batek azaldu duenez. Berarekin batera, Garaiz Auzmendi, Aloña Jauregi eta Iban Toledo aritu ziren zuzendari lanetan. "Gure filosofiaren arabera, ezagutzen dena maitatzera iristen da, eta maitatzen dena babesten da. Ezagutzatik babestera". Hori da jarraitu duten bidea.

Proiektua duela hiru urte hasi zuten, 2017. urtean, eta Goierriko elkarte "txiki" bat izanik, hutsetik hasi ziren. "Esan genuen, zerekin hasiko gara? Eta geologiatik hastea erabaki genuen. Gero, trikuharri asko daudenez, historiaurrea sartzea pentsatu genuen. Geroago, landaretza, fauna...". Pixkanaka dokumentalaren oinarria osatuz joan ziren. Arlo bakoitzeko adituekin lortzen zuten Aralar mendatearen inguruko informazioa. "Osotara hamazazpi elkarrizketa egin ditugu. Gure ustez, elkarrizketa eta material oso ona genuen. Zerbait serioa zela pentsatzen hasi ginen". Gidoi bat egin behar zutela pentsatu zuten orduan, eta Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel kazetariekin bildu ziren. "Guk egindako elkarrizketak ikusi zituzten, eta gustatu zitzairen. Gauza interesgarriak zeudela esan zuten". Ikusitakoarekin gidoi "nahiko poetiko eta sensuala" egin zuten. Dokumentala tarte tekniko eta fikzionatua nahastuz egin zuten; "Pixka bat oxigenatzeko. Azkenean, hitz egiten dizute 10 minutuz geologiaz eta asetu egiten zaitu. Arnas pixka bat behar duzu". Arlo teknikoaz Iban Toledo On produktoreko kidea arduratu zen: "Ibanen esperientziari esker lortu dugu horrelako kalitatezko zerbait egitea".

Urte eta erdi oso "intentsua" izan zela aitortu du Fontenlak. "Gogorra izan da, baina esperientzia aparta izan da. Markatu gaitu". Goi mailako elkarrizketatuak izan dituzte eta haiekin kontaktatzea eta geratzea batzuetan "zaila" zela esan du Fontenlak.



Ion Fontenla 'Aralar, mundua lekua den lurra' dokumentalaren zuzendarietako bat.

Aralar ezagutzetik, babestera

2018. urtean 'Aralar, mundua lekua den lurra' dokumentala mustu zuen Landarlan elkarteak. Helburua Aralar mendizerraren balio naturala eta kulturala erakustea zen. Dokumentala Europara iritsi da

Europako ingurumen komisiarioarekin ere elkartu ziren Bruselan. "Hau dena lortu behar da, antolatu behar da. Bidaiak egin ditugu eta Aralarreko igo behar ginen ere. Autorik ez genuen erabili nahi, eta zine material guztia itzuleko astoak erabili ditugu".

Sakana

Dokumentala sortzeko orduan Landarlan ingurumen elkarteak Aralarreko Gipuzkoako aldean oinarritu zen gehiago. "Natur parkea denez, legedi zorrotzagoa du. Orduan, pelikularen atal batean, kudeaketarenean, Gipuzkoako arazo horretan zentratzen gara gehiago, asko sartu gabe". Baina Aralar bere osotasunean erakutsi nahi izan dute, eta Gipuzkoan eta Nafarroan grabatu dute, bai Sakanan bai Malloetan. "Berdin izan zaigu. Denen historia ia berdina da". Ugatzak, esaterako, Urban, Andian eta Aralarren

bizi dira, "eta denok elkarbanatzen dugun ugatza da, goian ikusten duguna". Esaterako, Mikel Donea santutegia eta Putterri inguruak "pila bat" azaltzen dira dokumentalean. "Grabazioen %60 Gipuzkoan izan zen, eta %40 Nafarroan".

"Gaizka Arangurennek dio Aralar banatzen gaituen mendikate bat dela, baina Aralarrek ez duela banatzen; Aralarrek batu egiten gaitu". Aralar elkargune bat izan dela azaldu du Fontenlak, eta hori transmititu nahi izan dute. "Zenbat urtetan elkartu gara sakandarrak eta gipuzkoarrak Igaratzen?".

"27 PROIEKTUREN ARTEAN GURE PROIEKTUA EGOTEA, HARRO EGOTEKO MODUKOA DA"

Aralar European

Europako Batasunean egon zirenean, Bruselan, Karmenu Vella Europako ingurumen komisiarioarekin hitz egiteko aukera izan zuten, eta proiektuak interesgarria zirudiela esan zuten. "Ordura arte grabatuta geneuzkan irudiak erakutsi genizkion, eta harridura galdituzen". Vellak Europak antolatzen duen Natura 2000 sarietara aurkeztea proposatu zuten. Eta sarietan izena eman zuten. Natura 2000 sariak bi urtetik behin banatzen dira, eta European egin diren ingurumenari buruzko dokumentalek parte hartzen dute. Aurtengo edizioan 27 finalista izan dira, haien artean *Aralar, mundua lekua den lurra*. "27 proiekturen artean gure elkarte txikiaren proiektua egotea, Euskal Herriko bakarra, harro egoteko modukoa dela uste dugu".

"Gure helburua ez da sariak irabaztea. Gure helburua Aralar eta bertako baliabide naturalak zaintzea da, eta gizakiaren eta

naturaren arteko oreka hori lortzea. Hori da helburu nagusia". Helburua lortzeko oihartzuna izateak "lagunduko" duela esan du Fontenlak. Urrian izanen da Natura 2000 sarien sari banaketa, eta Bruselan egotea espero dute. Bi sari irabazteko aukera daukate: alde batetik, komunikazio sailean bost dokumentalekin lehiatzen dira. Bestetik, hiritarren saria dago. Hiritarren saria natura2000award-application.eu webgunean botoa emanez erabakiko da. "30 segundo dira eta sakandarrak parte hartzera animatu nahi ditugu".

Liburua eta ipuinak

Dokumentalaren proiektuaren ondoren, ikusleekin hitz egiteko aukera izan zuten, eta jendeak testuak nonbait jarri behar zituzten galdetzen ziren. "Testuekin zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, eta liburua egin genuen". Pelikularen izenburu bera du liburuak, eta Lorea Agirrerren eta Idurre Eskisabelen testuak agertzen dira Iban Toledo dokumentalerako hartutako argazkiekin edo fotogramekin uztartuta. "Pentsatzeko liburu bat da". Bestetik, Pello Ramirezek dokumentalerako bereziki sortutako soinu banda lor daiteke ere. "Irudiak erakutsi genizkion, eta musika konposatzen joan zen". Egindako lan hori aprobetxatu behar zutela pentsatu, eta Ramirezen disko berria bihurtu da soinu banda.

Dokumentaleko mezua gazte txoei helarazteko, lau ipuinez osatutako bilduma kaleratu dute ere. Patxi Zubizarreta idazlea eta Jokin Mitxelena ilustratzailea dira egileak. "Modu oso sinplean geologiaz, botanikaz eta abarrez hitz egiten da". Ipuinak asmatutakoak dira, baina Aralarren inguruan dauden kondairak oinarri dira: "Herensugeaz hitz egiten da, Aralarreko Arritzaga bailaran dagoen meategia...". Ipuinak %50 nafar eta %50 gipuzkoar direla esan du Fontenlak: "Txindoki, Mikel Donea, Mendukilo, Malloak... Toponimia ere agertzen da, eta Sakanako jendeari ezagunak egingo zaizkie". Ipuinetako protagonistak Joanes artzaina, Goliat txakur txikia eta Maren eta Aiart dira. Pertsonaia bakoitzari "gauzak gertatzen zaizkio". Ipuin bakoitza independentea da, baina liburu guztiak batzen dituen istorio orokor bat dago.

"Zure lana estadioan ikustea ohore bat da"

Sadar futbol zelai berriak Altsasuko piezak izanen ditu. Izan ere, eraberritzeko hainbat pieza Sakanako Proerai enpresan egiten ari dira. Nora Otamendi enpresako zuzendaria da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zehazki zer egiten ari zarete?

Momentu honetan eskailerak, urratsak eta harmailak egiten ari gara. Egiteaz gain gurekin lan egiten duten muntatzaileak ere han daude, zati bat eraikitzen. Momentu honetan, eskailera guztiak muntatu dituzte eta harmailak enpresa berak muntatu ditu. Orain hasi dira hegoalde beheko zonaldea deitzen diotena muntatzen. Eskaileren zatia nahiko handia zen, eta harmailen gehiengoa gelditzen da oraindik. Zatitxo txiki bat egin dugu, azpiko zatitxo hori, eta gelditzen da azpiko beste alde guztia eta goialdeko guztia. Oraindik lan asko gelditzen da egiteko.

2 Nola sortu zen aukera?

Harmailak eta horrelako materialak behar dituztenentzako beti daude fabrikatzaile jakin batzuk. Gu Proerai bezala Lakuntzan geunden eta bere garaian Nortzen zena hartu genuen, eta, hemen Altsasun, Nortenen, betidanik harmailak egin izan dituzte. Norteneko harmailak oso ezagunak dira. Orduan, harmailak egin behar dituztenean beti ateratzen dira



Nora Otamendi Proerai enpresako zuzendaria.

betiko prefabrikatzaileak. Nik uste enpresak tanteatu zituztela eta gu nafarrak garenez... beraiei gehien egokitzen zitzaiena gurea zela uste dut, eta horrela atera zen. Beti ateratzen diren moduan.

3 Ohore bat da, ezta?

Bai, noski. Azkenean, zure lana hor ikustea beti da ohore bat. Guk lan egiten dugu beste maileria batzuekin ere. Salamanca eta Tenerifen egiten ari gara. Horiek ez ditugu hain gertutik

ikusten. Sadar hemen aldamenean daukagu.

4 Zenbat langile ari dira Sadarreko piezak egiten?

Sadarrerako bakarrik 15 edo 20 pertsona inguru ari dira. Baina egia da Sadarrekoak egiten ari garen bitartean beste harmaila batzuk egiten ari garela ere. Baina harmailak eta eskailerak egiten 15 edo 20 pertsona izango dira, gutxi gorabehera.

5 Motibatuak daude?

Langileek badakite Sadarra egiten ari garela. Baina egia da beraiek egiten duten momentuan ez dakitela Sadarrerako den edo ez den. Motibazioa badago. Sadarreko harmailak egitea beraientzako ohore bat da.

6 Sorpresa bat izan zen Osasuneko enpresa batean egiten zirela...

Hemen zegoela enpresa, bai. Guretzako normala zen. Sadar egin behar dugula edo Salamancakoa egin behar dugula. Reina Sofia egin behar duzue esaten digute, eta ondo; edo Tenerifekoa egin behar dugula. Hori bereziagoa da hona etortzen direlako itsasontzietan doazen edukiontzi handi horiek, hemen kargatzen ditugu eta gure harmailak itsasontziz Tenerifera doaz. Baina egia da oihartzun handia izan duela haiek prestatu zuten bideoak.

7 Noizko aurreikusten duzue bukatzea?

Fabrikazioa abuztura edo irailera joango zaigula aurreikusten dugu. Bertan, Sadarren, ez dakit noiz bukatuko duten zehazki. Liga hastera doa eta

moldatu behar dugu. Orain ere jolasten ari dira eta egun horietan ezin dute lanik egin. Moldatu beharko gara, liga hasiera eta muntatze lanak. Covid-19arekin zaleak ezin direnez sartu, ongi etorri zaigu.

8 Zenbat pieza egin behar dituzue?

Gutxi gorabehera, 6.200 bat metro lineal harmaila, 1.060 urrats eta eskailera ez dakit zenbat diren zehazki. Baina inguru horretan. Piezak badira.

9 Nolako izango da itxura berria? Harmailak zerbait berezia izango dute?

Proiektua nahiko definituta dago. Planoak dira eta momenturen batean zertxobait bereziago eskatu dezakete eta aukerak eskaintzen dizkiegu. Baina itxura arkitektoek egin dutena izango da. Harmailak betikoak direnez, imajinatzen dut antzekoak izango direla. Berrituta, hori bai; baina antzekoak. Ez dute ezer berezirik izango.

10 Mustutze ekitaldian gonbidatuta egongo zarete, ezta?

Espero dut baietz. Ez dakit, baina baietz pentsatu nahi dut. Ez litzateke gaizki egongo.

11 Sadarrekoa ez ezik, zer lan egiten dituzue?

Mailateriak egiteaz gain, ur deposituak eta hormak egiten ditugu. Eraikin normaletan eta parkinetan erabiltzen diren horma bikoitzak ere egiten ditugu. Lakuntzako lantokian gehien bat prelosak deitutakoak eta hormak egiten ditugu, eta hemen beste produktu guztiak. Produktu dezente ditugu.

gk
DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

**NEURRI BEREZIAK HARTU
 BEHAR DITUGUN GARAIOTAN...
 ESKA ITZAZU GOGOKO JAKIAK!**

Erabilera bakarreko mahai-zapietan begiratuta,
 QR kodeetan kontsulta eginez....

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe